

Hirutasun txit santua

Hirutasun guztiz santua ere esaten da.

Jainkoaren misterioa adierazteko kristauak erabiltzen duten izena. Kristau-fedeko *dogmarik behinena adierazten du: horren arabera, Jainkoa, bakarra izanik, hiru pertsona edo norizanetan dela sinesten dute kristauak; horien izenak: Aita (lehen pertsona), Semea (bigarrena), Izpiritu Santua (hirugarrena).

Erabateko *misteriotzat dauka Hirutasunarena kristau-fedekak: hots, arrazoimenak ez dauka irakatsi horretara bere aldetik iris-terik; eta errebelazioaren argiz ezagaturik ere, giza arrazoimenak ez dauka frogatzerik; hala ere, ez da arrazoimenaren aurkakoa, bai horren haraindikoa, kristau-fedearen arabera.

Itun Zaharrean, oso tinkoro baieztatzen da Jainkoaren bakartasuna; eta Biblia osoan ez dago Hirutasunaren dogmaren formulazio esplizitofik. Hitz bera (grezieraz, trias), Antiokiako Teofilok erabili zuen lehen aldiz, II. mendearen azken aldean.

Baina Jainkoaren hirubakartasuna, Itun Zaharrean eta bereziki Berrian adierazita dago hainbat pasartetan. Hauek aipatu ohi dituzte batez ere: Abrahami agertu zitzaizkion hiru gizonena (Gn 18), Jakinduria liburuak behin eta berriro Jainkoa, beronen *jakinduria eta beronen *izpiritua, hirurak batera aipatzea. Itun Berrian argiago agertzen da Jainkoaren hirubakartasunaren irakatsia: *Bataioko formula aipatzen da bereziki, "Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Santuaren izenean" bataiatzeko agindua, ale-gia (Mt 28, 19). Epistoletan ere behin baino gehiagotan agertzen da antzeko formularik.

Kristautasunaren lehen hiru mendeetan bakean baieztatu zuten Hirutasuna, Bibliako formula erabiliz, batez ere bataiokoan eta fedeko sinboloetan. Baina fedearen azalpen teologikoa ematerakoan laster nabarmendu ziren eritzi ezberdinak, eta elkarren kontra-koak ere. Bi mendetan zehar iraun zuen eztabaidak, Nizeako Kontzilioan (325. urtean) eta Konstantinopolikoan (381. urtean), Hirutasunaren *dogmaren definizioa finkatu zuten arte. Ik. Definizio dogmatikoa.

Bi aldetara isuri ziren kontzilioek kondenatu zituzten eritziak. a) *Subordinazionismoa, edota Jainkoaren hirukoiztasuna finkatzearen, Semearen eta Izpiritu Santuaren jainkotasuna Aitarenez beheragoko mailan jartzen zuena. Hauetakoa izan ziren *arianismoa, Semea Aitaren sorkaritzat ematen zuena, eta mazedonianismoa, Izpiritu Santuaren jainkotasuna ukatzen zuena. Horien aurka kontzilioek hiru pertsonen jainkotasuna eta

izateberekotasuna baieztatu zuten. b) *Modalismoak, berriz, Jainkoaren batasuna finkatu nahian, hiru pertsonak Jaingo bakarraren agermodutzat azaltzen zituen. Horien kontra, bakoitzaren barneko norizan berezia eta hiruren banakotasuna irakatsi zuten kontzilioek. Nortasuna eta banakotasuna norizanen jatorri betikoan datza, hain zuzen.

Mendebaldeko eta ekialdeko Elizen arteko *zismakoan garrantzi apartekoa eduki zuen Izpiritu Santuaren jatorriaren edo "Filioque" zelakoaren eztabaidak. Ekialdetarrek lerro batez irudikatzen dituzte hiru pertsonen jatorriak, lerroaren abiapuntuan Aita dagoelarik; Eliza mendebalduan, ordea, triangulu aldeberdinez irudikatzen dute.

Islamismoak esplizitoki ukatzen du Hirutasunari buruzko irakatsia, Jainkoaren bakartasun absolutuaren izenean.

Ik. Aita Jaungoikoa; Jainkoaren Semea; Izpiritu Santua; Jesukristo; Hipostasia. Paulo Agirrebaltzategi

Historiaren teologia

Kristau-fedekak uste du errebelazioa historikoa dela eta giza historiaren barnean gertatzen dela: *salbamen-historia gisa ulertzen du errebelazioa. Horregatik, historia osoa barrutik balioztaturik gelditzen da salbamen-historiaren argitan.

Historiaren teologia, bada, zera da: salbamen-historiaren oinarritzko barne-egiturak eta horrek giza historia osoan duen esan eta erasana edo eragina aztertzen dituen.

Ik. Kondaira santua.

Historikotasuna

Zerbait edo norbait iraganean gertatua izateaz gain, dokumentu historikoen bidez egiaztatzeko modukoa izatea.

Historizismoa

Mundua ulertzeko eta egia ezagutzeko bideari buruzko teoria da: E. Troeltsch-ek definitu zuenez, "Gizakiari, berorren kulturari eta baloreei buruzko gure pentsaera osoa oinarri-oinarrian historiko bihurtzea da". Horren arabera, historiako joairatik kanpo legokeen gizatasun abstraktu eta unibertsala alde batera uzten du historizismoak; eta betiko egiak ere kolokan gelditzen dira. Eliza Katolikoko irakasleak *erlatibismoaren kutsua hartu izan dio, eta susmo txarrez ikusi historizismoa.